



Museoaren zati batean antigoaleko tresna batzuk erakusten dira.

Sagardoari buruzko lehen museoak egin da Asturiasen

Edariaren historia ez ezik, nola egiten den ere ikus daiteke bertan

DV. DONOSTIA

Larunbatean inauguratu zen Asturiasko Nava herrian Sagardoaren Museoa. Hauxe da edari honi buruz, modu monografikoan, Espainian egiten den lehen museoak. 1.650 metro koadro ditu eta 340 milioi pezeta kostatu da.

Ez da soilik sagardoaren historia erakusten duen museoak. Bisitariak ikutu eta eragin dezaketen pieza batzuk ere egongo dira, eta gainera nork bere muztioa egin ahal izango du.

Bisitari bakoitzari sagar ale bat emango zaio museora sartzean.

■ *Sagardoak literaturan eta artean izan duen presentzia ere erakusten da*

Gero ikusiko du nolako pausoak ematen dituen sagar horrek harik eta sagardo bihurtzen den arte. Azkenean, probatzera emango zaio bisitariari sagardoak.

Edari honek literaturan, zinean,

kantagintzan eta arte plastikoetan izan duen presentzia ere erakusten da luze eta zabal. Mundu mailako datuak ere ematen dira; esaterako, zein tokitan egiten den sagardoak: Euskal Herria, Galizia, Britainia Handia, Frantzia, Estatu Batuak, Kanada eta Hegoamerikako zenbait naziotan.

Asturiasko erdialdean dago Nava, Oviedotik 28 kilometrora. Oso famatua da herri honetan egiten den den Sagardoaren Festibala. 1969an hasi zen jai hori ospatzen. Gaur egun bederatzi sagardogile daude bertan.

DV 12/11/1996